

Tabu estetikoa

Isidro Novo



Itsastarra, Isidro Novo Lugon jaio zen aurreko mendearen erdialdean patriaren egunean berbena hastear zen orduan. Salbuespenak salbuespen, jaio zen hirian bizi izan da, utzi zutenera arteko ikasketak egin zituen bertan eta askotariko lanak egin zituen bertan: liburu saltzaile, elikatzeko produktuen saltzaile, administrari, tabernari...

Idatzian eginiko lehen urratsak gazteleraz izan ziren, baina identitatearen kontzientziaz jabetzerakoan, galegoa bilakatzen da haren hizkuntza bakarra eta borondatezkoa. *Teaza da brétema*, O Barco De Vapor sailean publikatu zena 94. urtean izan zen haren lehen bakarkako argitarapena. *Por unha presa de machacantes* western komikoak jarraitu zion, eta urte horretan bertan argitaratu ziren *Carne de Can*, zortzi narrazioetako bilduma izaera dramatikoduna eta baita *Dende unha nada núa* poema liburua. Bi urte beranduago, 99. urtean, Antollos de Eimarmena agertzen da, oraingoan ere narratiba laburra eta lau urte argitaratu gabe igaro ondoren, agertu ziren hurrenez hurren, honako nobela hauek: *Súa de si*, *Rosa lenta* eta *Un escuro rumor tralo silencio*.

Haren hirian artisau-ardoa dastatzeko gida ere argitaratu zuen (*Guía do bebercio lugués*- 92 eta 95). Círculo Líticos taldeko partaideetariko bat da eta honako ikuskizun aldarrikatzaileetan parte hartu zuen: *Viva Palestina!* Eta *A maré das negras ondas*.

Gure ilunpeak

Isidro Novo

Proposatzen zaidanaren harira, honako hau esango dut: idatzi hau egiten ari naizenean Galizian, garai hurbiletan oroitu ez bezala, ika-ragarritzko sute pila daude, berariaz pizturikoak eta kriminalak, eta horregatik, une honetan zaila egingo litzaidake oso suaren apologiaren bat idaztea. Halaber, benetan gustu txarrekoa irudituko litzaidake baten batek sugarrak protagonistatzat dituen zirikadaren bat kontatzea. Niretzat, ikuskera mirifikoaren arabera, sua behin-behinekotasunez tabua den gaia da. Estetikoki gaur egun mespretxagarria iruditzen zait. Baina, nire pertsonarengan mugatu gabe ere, kontua da, ez dela beharrezkoa oinaze baten edo trauma baten bitartekotza ere kontu jakinen bat gozakaitza, deserosoa edo besterik gabe desordukoa dela kontsideratzeko. Celestino Fernández de la Vega Lugoko filosofoaren *O segredo do humor* [Umorearen sekretua] liburuaren hitzaurreko lehen hitzak honako galdera hau egiteko dira: “Umoreaz hitz egin al daiteke?”. Eta galdera hau egin ondoren, honako hau azaltzen du: “...guzti-guztiek ez dituzte begiko, sineskeria “zientifisten” garai honetan, gai eta ikertze desinterasatuak, eta itxuraz, alferrikakoak”.

Ez da beharrezkoa inolako arrazoi transzendenterik idatzian une konkretu batean joera bat gailentzeko eta beste batzuk ezkutuan geratzeko; moda literarioak, oztoporik ez dagoenean, gainerako modak bezalakoak dira, eta horrela, 80ko urteetan Ricardo Carvalho Calerok, M^a Xosé Queizénen Amantia poemaren iruzkina egitearekin batera, honako hau dio: garai hartan Galizian nobela historikoa modan zegoela zioen, eta ez autarkia literarioa. Herodoto ez beste guztia oharkabean igarotzen zen, edo narratibaren eremuan ikusezina zen. Baina Cilistro jakitunak bere liburu zabaltzen duen galdera egiten zuen unean, bazegoen Galizian eta baita Estatu osoan ere buru aurrerakoiaentzat eremu politikoan jarduteko abagunerik ez zegoen kasik, isilik egon nahi ez bazuen behintzat, eta ideien adierazpenak berak debekaturiko zer edo zer bezala onartu nahi ez

bazuen. Lugoarraren saiakeraren argitaratu baino urtebete lehenago, Celso Emilio Ferreireoren poema-bildumak *Longa noite de pedra*-k [Harrizko gau luzea] ikusi zuen argia, izenburu enblematikoduna, garaia bera argiki iradokitzen duena. Garai hartan tabua bera sarritan estetika bera zen. Ustekabeko literatura sortzen ari zen –batez ere poesia–, edertasun subjektiboaren bilaketa funtsezkotzat jotzen ez zuena, izan ere, guztiontzat posible zen edertasun komunaren alde borrokatzeko unea zela kontsideratzen zen, zilegi zen edertasun bakarraren alde; Askatasunaren alde borrokatzen zen. Garai horretan eraginkortasun persuasiboa bilatzen zen, eta igorpenari dagokionez, ahozkoaren moldera jokatzen zuen idatzia bilatzen zen. Bere garaian sozial-errealismoa deiturikoa izan zen, nahiz eta sozial-erromantizismoa deitzea nahiago duten autoreak egon. Zorionez, derrigorturiko ilunpe garai hori igaro ondoren, literatura galegoak bere argitasuna berreskuratu zuen eta beharbada asebetarik zegoelako edo denbora luze batez gure herriko literatura intimoaren eta existentzialaren bandera haizaratu zuen, denbora luzez beharraren beharraz eginiko molde hura tabu bihurtuz. Gaur egun patxadaz berraztertzeko garaia da, nahiz eta molde hark irudirik eta joko literariorik ez izan (zuen funtzioa zela-eta egokiak ez zirenak), ez da dudarik, badira berrirakurtzekoak diren obra dezente, zirrargarriak direnak nahiz eta egileak mezuaren esentziaz gehiago arduratu mezua igortzeko formaren edertasunaz baino. Aipaturiko Celso Emilioren ahotsa litzateke entzungarriena, baina, halaber, jende gazteagoa ere aertu zen mundu literarioan korronte sozial-errealista horri jarraituz, esate baterako, Lois Diéguez, Margarida Ledo, Darío Xoán Cabana edo Heriberto Bens heteronimo ferriniarra, garai hartako sonatuenak baino ez aipatzearren.

Gure literaturaren garai honetara eginiko hurbilketa baliatu nahi dut beste mota batetako tabu bat aipatzeko, bestelako autozentsura estetikoa, hainbat autorek hizkuntzaren alorrean egin zutenak. Aipatzen ari garen garai honetakoa bakarrik ez den autozentsura, baizik eta belaunaldi literario guztietan emandakoa, hizkuntza baztertu edota hizkuntza ilegalean idazteagatik ez zuten eredu normatiborik izateko aukerarik izan. “Hiperenxebrismo” [hipergarbizalekeria] deitu izan den fenomeno da. Egile galegoa, hizkuntzarekiko harro, duin, maitale, bere maitea suntsitu nahi izan duen horrengandik hainbeste urrundu nahi duenez, hizkuntza inbaditzailearekiko edozein bat-etortze onartzea kosta egiten zaio, eta hauengandik ihes egiten du izurria bailiran. “Cadeirádego” esateko gai da “catedrático”-ren ordez, edota “oficiña” “oficina”-ren ordez. Gaur egun, jarrera hau linguistikoki bizioa kontsideratzen da, baina, nik neuk uste dut ezinikusi arrazoitua zela.

Ezinikusi hau ez zuen sortu bakar-bakarrik koarenten madarikatu horrek, duela gutxi berreskuraturiko gure hizkuntza berriro ere prekariedade eta marginalitatera eraman zuenak. Izan ere, tabuak hizpide izanik, ez zen tabua izan, hitzaren zentzurik zabalenean, gure hizkuntza idatzietatik erbestera izana hiru mendetan zehar? Ez al zen tabua izan, maila estetikoan hitz eginda, gau mendeantzasun horretan agertu ziren galegoz idatziriko testu gutxi horietatik gehienak gazteleraz idatziriko obretan izatea, hura irrigarri utzi eta haien kontura barre egiteko, jende umil eta ezjakinen ahotan ezartzen baitzen beti? Beharbada ziri literario horien egileei honako hau galdetu beharko litzaieke: ez al zen irrigarriagoa eta lausengariagoa haiek kultura eta hizkuntza bati egindako basailutza indarrez ezarritakoari. Ziur asko, garai ilun haietako lanik duinenak Feijoo, Sarmiento eta Sobreira apaizek eginak ditugu, XVIII. mendeko pasadizokoak direnak hirurak ala hirurak.

Egia esateko, gure hizkuntzaren maitale dena, edota justizia eta berdintasunaren maitale den edonor gogobeteko du hurrengo mendeko historia literarioak. Gure literatura idatzia berreskuratu ez ezik, berreskuratze horren nortasun itzaltsu eta adierazgarriena emakume bat da. Hartara, aldi berean bi tabu urratu ziren. Literatura berriro agertzen da, eta emakumea agertzen da literaturaren eragile aktibo, sorkuntzaren ekoizle. Rosaliaren esku sentsibletik, haren edertasuna azpimarratzeko estilistik onenaren esku berragertzen da gure literatura.

Dena dela, ez litzateke bidezkoa bidean argiak pizten joan ziren beste izan batzuk ez aipatzea, nahiz eta Cantares Gallegosen egilearen mailarik lortu ez. Berpizte hoerretan izan zuten garrantziarik, besteak beste, Xoán Manuel Pintos, literatura galegoaren izenbururik luzeena duen liburuaren egilea dena, honela otoitz egiten duena: A gaita galega tocada polo gaiteiro ou sea Carta de Cristus para ir dependendo a ler, escribir e falar ben a lingua gallega e aínda máis. Baita Pastor Díaz ere, nahiz eta ekarpen txikiagoa egin, Franciso Antón poeta entzutetsua ere, Alberto Camino Sigües eta bere anaiak, Díaz Robles, López de la Vega, eta nola ez, Benito Vicceto eta Manuel Murgia, Galziaren alde hainbat eta hainbat lan egindakoak, euskaraz haien obraren zati txiki bat baino idatzi ez bazuten ere. Lehenengoaren sorkuntza poetikoa batzuk baino ez dira ezagutzen, A balada dos Montenegros, An cantiga dos borbo-riños eta O sonho dunha noite de verao eta bigarrenaren kasuan, maite eta defendatu zuen hizkuntzan testu bat baino ez da ezagutzen, Nena das soidades izenburukoa. Pleiade gutzitik Rosaliaren izena sonatuena den garai horretan, ezin dira ahaztu oraindik ere gure

literaturan hainbeste lustre duten zenbait izen, batez ere Pondal eta Curros, baina baita Marcial Valladares, López Ferreiro, Xesús Rodríguez, Manuel Lois Vázquez eta Valentín Lamas Carvajal, O tío Marcos de Portela-ren sortzailea, galegoz osoki idatziriko lehen egunkaria.

Haustura bikoitz horren berri ematea beharrezkoa iritzi diot, eta halaber, denborak aurrera egin ahala gainditu beharreko kontuak ere badirela ohartarazi nahi dut. Salbu gai folklorikoez hitz egiteko, XIX. mende osoan zehar galegoz narrazioa idaztea tabua da, eta inspirazio galegoko istorioak tratatzea ere tabua zen, narrazioak luzeak zirenean. Rosalia bera dugu adierazpen horren adibide, bi adibide jartzearen, La hija del mar edo El caballero de las botas azules narrazioak ikusi bezala Cervantesen hizkuntzan idatzi zituen, ez Esquiorenean. Sabuespen dira Marcial Valladaresen nobela, Maxina ou a filla espuria eta baita Antonio López Ferreiroren A Tecedeira de Bonaval izenburukoa.

Eta esan berri dudan hau gaur egungo egoerarekin lotzeko eta neure hitzei amaia emateko, egun gure literaturan presente dagoen tabu bat izan nahiko nuke hizpide. Idatzi poetikoetan ez dagoen tabua, baina bai narratiboetan: erotismoaz dihardut. Gure lurran egoera bitxia ematen da poesian onarturik dago eta baita askotan behar bezala goratu ere egiten da (hor dira, zenbait aipatzearen, Yolanda Castaño, Olga Novo eta Claudio Rodríguez Fer); narratibazko obra gutxi horiek, aldiz, promozio eta publizitate eskasa izaten dute, haien kalitate literarioa dena dela ere. Arreta falta horren arrazoia ez da, ez, gaiaren inguruko testuez asperturik dagoelako irakurle galegoa –esan liteke, gure literatura eremu horretan birjina dela– eta ez dirudi irakurleen artean ere genero horrekiko desinteresa dagoenik. Honen inguruko aipamen gutxi egiten dira, baina entzuten diren gehienak narratiba erotikoa egitea ez dela beharrezko iritzi dute, eta baieztapen hori arrazoitzen dute erotismoaren adierazpen literarioak narratiba orokorrean txertatu direla esanez, eta hartara, genero erotikora ez atxikituriko sail literarioetan parte izanik, haien osagaietariko bat dira. Narratiba orokorreko obra horiek gertaera erotikoa bere dimentsio osoan bere egiten dutela ez dut batere argi. Normalki sexu eszenaren bat ageri da, kasuren batzuetan erotikoak gerta daitezkeenak. Nire galdera honako hau da: zergatik poesia bai eta narratiba ez? Beharbada lehenengoa sotil eta hautemangaitzagoa delako? Baina, hala bada, zergatik bigarrenak erantzuten du horrela? Tabu estetikoa da edo badu itzalean indar ematen dion zantzu erlijiosorik, konsziente edo inkonszienterik? Noiz edo noiz, baten batek erantzun sineskorren bat ematea eskertuko nuke.